

Honako idazkia bihoa bere tramiterako  
..... Saltera  
Pasa el presente escrito al Negociado de  
*Secretaria*  
*Alcaldia* para su trámite  
LASARTE-ORIA 2016 APL 06  
IDAZKARI GOKORRAK

## MOZIOA – EUROPA – ERREFUXIATUAK – SIRIA - TURKIA

Iheslariak bizi duten bidegabekeriak harridura, mina eta inpotentzia eragiten digu. Egoera horrek gure sinesmen etiko eta demokratiko sakonenak erasaten ditu. Europako proiektuari zentzua ematen dion humanismoaren muin berean sentitzen dugu.

Hau ez da «iheslarien krisialdi» hutsa, iheslariak jasaten duten egoera bidegabea baizik. Eta egoera bidegabe horixe da Europa astintzen duen krisialdiaren adierazlerik argiena. Europear Batasunaren eta europear Estatuako gobernuen balio-krisialdi sakona ere bada, balio instrumentalak pertsonen balioaren aurretik jarri baitituzte.

Euskal hiritarrek hasiera-hasieratik Europarekiko bokazio eta konpromiso garbiak izan ditu. Europako proiektuaren gainbehera irudikatzen duen krisialdi humanitario honetan, gure ahots kritikoa entzunarazteko beharra sentitzen dugu.

Europako proiektuaren identitatea, bideragarritasuna eta iraunkortasuna eratu zituzten jatorrizko balioak berreskuratzea da gure nahia. Sorrerako balio horiek, espiritu humanista eta Europako proiektuaren muinean kokatutako pertsonak dira, hain justu, egungo duineztasunari, lotsari eta elkartasun ezari aurre egiteko gure tresnak.

Berreskura ditzagun balio etikoak, politikoki integratutako Europaren proiektuaren zutoin ziren balio haiek. Har dezagun iheslarien krisiari erantzun azkarra, eraginkorra eta gizatiarra emateko konpromisoa.




Krisialdi honi ematen dion erantzunaren arabera izango da Europaren proiektu komuna etorkizunean. Pertsona jardunaren muinean kokatzen duten printzipioetan eta balioetan oinarritutako proiektu gisa, Europak duen ahalmena iheslariek jasaten duten bidegabekeriari irtenbide bat aurkitzeko gaitasunaren irudia izango da.

Ondorioz, Lasarte-Oriako Udal Batzak zera adierazten du:

1. Europar Batasunak eta Estatu kideek joan den martxoaren 18an Turkiarekin lortutako akordioan azaldu duten adore eta konpromiso eza jarrera salatzen du, izan ere arrisku larrian jartzen bait du Europaren identitatea. Europak dituen balioen mailari eutsi beharko lioke.
2. Europak eta bere herrialdeek errefuxiatu krisi honen aurrean irmoki elkartasuna, ardura eta legezketasun konpromisoak berretsi behar ditu. Elkartasun-konpromisoa esan nahi du gerra batetik ihesi, muturreko sufrimendu-, behar- eta larrialdi-egoeran daudenei premia eta atzerapenik gabe laguntza emateko behar humano eta humanitarioa eskeini behardiegula. Ardura-konpromisoa suposatzen du Europaren funtsa pertsonen, pertsona guztien, giza eskubideak eta duintasuna defendatzeko ardura onartu behar duela. Ardura horrek dakarren konpromiso instituzionala, politikoa eta soziala onartzea. Eta legezketasun-konpromisoa esan nahi du Europak nazioarteko zuzenbidea bete beharra dauka. 1951ko Genevako Konbentzioa, Giza Eskubideen Adierazpenaren 14. artikulua eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Kartaren 18. artikulua Europak nahitaez bete beharreko arauak dira.
3. Europar Batasunari zein Estatu kidei exijitzen die irtenbide humanitario azkar bat eman dezatela errefuxiatuak bizi duten egoera larriari era egokian erantzunez. Zentzu honetan, berretsi nahi du Euskal Erakundeek beraiei dagokien ardura hartzeko prest daudela.



4. Europear batasunari eta Estatu kideei eskatzen diegu pasabide humanitarioak sortzeko agindu dezaten, eta pertsonen eta nazioarteko zein europear legediari errespetuan oinarrituz, pertsona horiei Europar Batasuneko 28 Estatu kideen artean behar bezalako ongietorria eta asiloa eman diezaieten.



**Eaj udal taldearen izenean**

